


# 'Denboraren zubia' liburua ondu du Iñaki Iturainek

Erein argitaletxearekin argitaratu du narrazio liburua, eta atzo aurkeztu zuen, Donostian • 1936ko gerra abiapuntu hartuta, zazpi ipuin osatu ditu oriotarrak

**-ONINTZA LETE ARRIETA** Orio Iñaki Iturain oriotarrak *Denboraren zubia* izeneko liburua argitaratu berri du Erein argitaletxearekin. Fikziozko bere lehen liburua da, eta zazpi narrazio edo ipuin jaso ditu bertan. Lana atzo aurkeztu zuen Donostiako Udal Liburutegian, Inazio Mugika Ereineko editorea ondoan zuela.

1936ko gerra dute abiapuntu ipuinek, baina denboran atzera eta aurrera egiten dute, askotariko istorioen eta pertsonaien bitartez: ipuinetako batean etxeko irratia balkoira ateratzen zuten andre-gizonak ageri dira, etxepan biltzen ziren herritarrek bazetorkien gerraren albisteak entzun ahal zitzaten; beste ipuin batek faxisten aurrerakada gelditzeko gorriek dinamitaz lehertutako ibaiaren gaineko zubia berre-raikitzen ibilitako presoaren istorioa kontatzen du; baita bi mutil gazteren istorioa ere, bataren eta bestearen aita kontrako bandokoak izanik, itsas labarrean adiskidetu zirenak; beste istorio batek gerra bukatu berritan Frantziatik Orizarra -liburuan ageri den alegiazko herria- misio sekretuaren etorritako neska antropologo eta argazkilaria irudikatzen du; eta ipuinetako batean gerran gudari ibilitako gizonaren alaba kementsuaren istorioa kontatzen da.

Iturainek urteak darama-



Iñaki Iturain idazle oriotarra, atzo, idatzi duen liburua eskuetan. EREIN

tza Orioko historiari buruzko kazetaritza eta ikerketa lanak egiten, batez ere 1936ko gerraren ingurukoak, eta gaiaz memoria historikoaren alorreko liburua ere argitaratu zuen 2014an, *Gerra bat barruan degula* izenburupean. Lan hark ez zuen asebeteta utzi, ordea. «Liburu harekin ez nuen nire lana borobilduta ikusi. Izan ere, herritarrek hainbat istorio kontatu izan zizkidaten, baina istorio haietako batzuetan,

ezin jakin zer gertatu zen tartean edo amaieran. Esaterako, emakume batek lortu zuen senarra atxilo zeukaten militarren kanpamentura joan, eta hura handik etxera ekartzea. Baina zer gertatu zen kanpamentuan? Nola lortu zuen? Inork ez du jakin izan inoiz. Zerk eman diezaiokie erantzuna horri? Bada, literaturak, fikzioak», iritzi zion.


Horregatik, idazle oriotarrak «zubitxoak sortu» zuen, «ibil-

bide bat egiteko kazetaritzatik literaturara».

## Ahozkotasuna sentituz

Mugikak Iturain lanetik hainbat ezaugarri nabarmendu zituen prentsaurrekoan, tartean narrazioak girotzeko duen gaitasuna: «Iñakik oso ondo daki girotzen bere narrazioak, bai lekuz, bai garaiz, bai pertsonen arteko harremanetan. Gertatzen den guztiari sinesgarritasuna ematen dio.

## Liburu fitxa



## 'DENBORAREN ZUBIA'

**Egilea.** Iñaki Iturain (Orio, 1956). Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Zientzietako ikasketak ditu eginak. Ibilbide profesional ia osoa euskarari lotutako lanegietan eman du, euskararen ezagutza, erabilera eta atxikimendua sustatzeko zenbait alorretan, irakasle eta teknikari. Orioko eta Aiako Karkara herri aldiakariaren sortzaileetako izan zen, eta hango kolaboratzailea da gaurdaino.

**Liburuaren izenburua.** *Denboraren zubia*.

**Argitaletxea.** Erein.

**Generoa.** Narrazioa.

**Orrialdeak.** 136 orrialde.

**Non eskuratu.** Hainbat liburu dendatan, baita *Erein.eus* atarian ere.

Gainera, suabe-suabe kontatzen du; transzendentzia handirik gabeko kontuak balira bezala aritzen da transzendentzia handikoak diren gauzez».

Ahozkotasunak liburuan duen garrantzia ere azpimarratu zuen Ereineko editoreak: «Iñaki asko irakurritako pertsona da, baina baita asko entzundakoa ere: ahazkotasunerako joera du, eta liburuan sentitu egiten da ahazkotasunarekiko arreta hori».

# Trenak maizago egoteko lanak, abiatzear

## -JUAN LUIS ROMATE

Aginaga parean, Orioko eta Usubilgo tren geltokien artean, trenbide saihesbide bat egiteko lanak esleitu berri ditu ETS Euskal Trenbide Sareak. Trenbide bikoitzean 1.329 metro luze izango den tunel bat erakiko dute, gaur egungo ibilbidea laburtuz. Era horretan, Donostia eta Zumaia arteko maiztasuna handituko dela aurreikusten dute.

ETSren arabera, lan horien bidez Aia-Orio eta Usubilgo arteko bidaia bi minutuan murriztuko da. Izan ere, gaur egun bederatzita minutu behar dira bi geltokien arteko bidaia egiteko. ETSk ohar bidez azaldu duen bezala, trazadura trenbide bakarrean doa, Oria ibaiaren paraleloan. «Puntu horretan meandro bat egiten du, eta, beraz, bihurria da, erradio txiki kurbak eta kontrakurbak

ditu. Gaur egun trenek Aginaga mendia inguratzen dute».

## 30 milioi euroko lanak

Bidaia laburtzeko, tunela zulatuko dute. «Bi muturretan tunel faltsuko egiturak proiektatu dira, obra ingurunean integratzeko. Bilbo aldean 24 metroko luzera izango duen soluzioa diseinatu da, eta beste aldean, Donostiakoan, 30 metro izango ditu. Tunelak 371

metro luzeko larrialdietarako galeria bat ere izango du».

Trenbidearen trazadura berritari esker, ibilbidea 1.500 metroan murriztuko dela ere adierazi du ETSk. «Tunel osoan trenbidea bikoiztuko denez, bidaiarien eta salgaien unitateak gurutzatu ahal izango dira. Baldintza horiekin, trenbidearen zerbitzu ahalmena handitu egingo da, eta, beraz, gaur egun 30 minutu

zirkulatzen duten ibilgailuek 15 minutu zirkulatu ahal izango dute».

Lanak 30,6 milioi eurotan esleitu dizkio Euskal Trenbide Sareak Construcciones Moyua, Jaizubia eta Geotunel enpresek osatutako Aldi Baterako Enpresa Elkarteari. Trenbide saihesbidea egiteko lanek 40 hilabeteko egikaritze epea izango dutela ere azaldu du enpresa publikoak.